

Lerroz lerro, kolpez kolpe

«Seminario» eta «mintegi»k
erro bera nola duten
barruan erne izanagatik
kanporako grina nuen.
Arantzazuko sentitzen naiz bai,
ez guztiz Arantzazuren...
lerrorik lerro, kolperik kolpe
nire historia hemen:
lehen arnasa hartu nuen nik
hara kontuak zer diren...
zintzilik jarritz, goxo jotako
lau ipurdikon ondoren.

Sortu bezala iritsi nintzen
hor nonbait bost urtetara
azalberritu egin ninduten
zabalduz lau haizetara.
Matraileko bat eman zidaten
orbaina hemen dut hara...!
Zentsuran mina hiru urtean
gainditua neukan jada.
Okerragoa izan zen gero,
iritsi zelarik Fraga
hamairu urtekin eman zidaten
lehenengo ukabilkada.

ANDONI EGAÑAREN AGURRA

Ezdeus bihurtu ninduen Francok
ez kanpoko ez etxeko
garai haietan otsoak berak
jartzen zuen hainbat zepo.
Hamairu urtetik hogeit urtera
desegin ninduten seko
nerabezaro gabea naiz ni
diktadorea tarteko...
horrexegatik sentitu nuen
horrenbeste bizkarreko
idazmakinan jotzen ez nuen
tekla-kolpe bakoitzeko.

Geroztik hainbat urtetan zehar
irten izan naiz plazara
betebehar bat sentitzen nuen
eta ezin erdizka laga.
Izanagatik bi-hiru muzin
eta hainbat zangoztraba
matrailekoa zein den ederra
maite-maite baldin bada
bizkarrekoa hartu liteke
animo-igurtzi gisara
ta tematien nahiz langileen
ikur da ukabilkada.

Berrogeita hamar urte baditut
egin dut bide luzea...
letra beltzetan edertu nahian
paper zurizko mihisea.
Kokoteko bat kritikoa da
nahi dudan kolpe klasea
adieraziko bailuke zuen
Jakin min, Jakin gosea...
Helduaroan, baldin baneuka
nengoke guztiz ase...
begi-kolpe bat, begi-keinu bat,
irakurle konplizea! ♣